



Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2018ko apirilaren 6ko EBAZPENA, jantoki-arduradun gisa zerbitzuak ematen dituzten pertsona zehatz batzuei aurreko ikasturteetan eman zaizkien zerbitzu-eginkizunak luzatzeko prozedura ezartzen duena.

Uztailaren 6ko 185/2010 dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko funtzionario irakasleen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duenak, bere artikuluetan arautzen du "jantoki-arduradunaren" kargua. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2000ko martxoaren 22ko AGINDUAK, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako eskola-jantokiak derrigorrezko irakaskuntza-mailetan eta Haur Hezkuntzan (2. zikloa) arautzen dituenak, azaltzen ditu jantoki-arduradunak diren irakasleen funtzioak.

Lanpostuetan aritzeko aparteko era bat da zerbitzu-eginkizuna. Azaroaren 7ko 16/1997 legearen bidez aldatutako uztailaren 6ko 6/1989 legeak, Euskal Funtzio Publikoarenak, 54. artikuluan eta lehen aipatutako akordioak 12. artikuluan arautzen dute; izan ere, 12. artikulua horren arabera, *"ezaugarri berezietako lanpostuak edo funtzioak bete behar izanez gero, zerbitzu-eginkizunetan betetzeko deialdi espezifikoak egin ahal izango dira. Deialdi horien arabera, izango da zerbitzu-eginkizuna hurrengo ikasturteetan luzatzeko aukera (...)"*.

Ildo horretan, jantoki-arduradun gisa zerbitzuak emateko zerbitzu-eginkizunak eman zaizkie pertsona zehatz batzuei zenbait ikasturteetan eta zerbitzu-eginkizun horiek hurrengo ikasturteetan luzatu dira.

Horren arabera, eta 79/2017 dekretuak, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituenak, 10. artikuluan xedatutakoaren arabera,

EBAZTEN DUT:

LEHENENA.-Jantoki-arduradun gisa zerbitzuak ematen dituzten pertsona zehatz batzuei aurreko ikasturteetan baimendu zaizkien zerbitzu-eginkizunak luzatzeko prozedura ezartzea 2018/2019ko ikasturterako.

BIGARRENA.- 2017/2018ko ikasturtean jantoki-arduradun gisa zerbitzu-eginkizunetan aritzeko baimena lortu duten eta 2018/2019ko ikasturtean zerbitzu-eginkizun horretan jarraitu nahi duten pertsonak izango dute luzatzea eskatzeko aukera. (I. eranskina ikusi).

HIRUGARRENA.- Hezkuntza Sailaren web orrian eskura dagoen ezarritako ereduaren arabera egingo da zerbitzu-eginkizuna luzatzeko edo berorri uko egiteko eskaera eta pertsonak zerbitzuak ematen dituen ikastetxeko zuzendaritzan aurkeztuko da.

LAUGARRENA.- 2018ko apirilaren 10etik 20ra artekoa (biak barne) izango da zerbitzu-eginkizunetan jarraitzea edo berorri uko egitea eskatzeko idazkia aurkezteko epea.

BOSGARRENA - Zerbitzu-eginkizunetan jarraitzeko edo espresuki uko egiteko eskaera ebazpen honetan ezarritakoaren arabera egiten ez dutenek galduko dute zerbitzu-eginkizun horretan jarraitzeko eskubidea eta uko egiten diotela interpretatuko da.



SEIGARRENA.- Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren bidez, eskatzaileek baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, emango dira zerbitzu-eginkizunak luzatzeko baimenak. Uko egiteak aipatutako ebazpenean onartuko dira. Jakinarazpenaren ondorioetarako, Hezkuntza Sailaren web orrian emango da argitara zerbitzu-eginkizunean jarraitzea baimentzeari eta uko egiteak onartzeari buruzko ebazpena.

Aipatutako ebazpena argitara eman ondoren, ezin izango da zerbitzu-eginkizunean jarraitzeari uko egitea eskatzeko idazkirik aurkeztu.

Gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

ZAZPIGARRENA.- *Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeak* 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz 2018ko apirilaren 6a

Konrado Mugertza Urkidi
DIRECTOR DE GESTIÓN DE PERSONAL
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA



**I. ERANSKINA- 2017/2018KO IKASTURTEAN JANTOKI-ARDURADUN
GISA ZERBITZU-EGINKIZUNETAN ARITZEKO BAIMENA LORTU
DUTEN PERTSONAK**

DNI	CENTRO
15942164	12185
22713704	15093
72020061	14426
78933351	15109